



Larrosak eta akordeak, Lourdesen omenez

Lourdes Iriondoren omenezko ekitaldia antolatu zuten Andoainen, Gabonetan ETB1-eko "Oholtzan" saioan ikusi ahal izango dena / 13

Ostalaritza sektorea, erabakien zain


Andoaingo eta Urnietako ostalariak berrabiarazteko gogoz daude. Eusko Jaurlaritzaren aginduen zain, erakundeak laguntzak eta herrikideen elkartasuna jaso dute / 6




Maialen Mujiika eta Aziz Mounpe 'Puochi nah' proiektuaren sortzaileak dira / 11




Maribel Vaquerori elkarrizketa, Espainiako aurrekontuak onartu diren astean / 8-9



Euskaraldiari agur esateko ekitaldia antolatu zuten Andoaingo Goiburu auzoan / 12



Aiurri astekariarekin batera 2021eko EGUTEGIA



AIURRIKO HARPIDEDUN IZATEAREN ABANTAILAK



Luisita Urdangarin eta Joakin Iraola, Bekobarkaitzegi baserrian. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Goiburu auzoan Xoxokako jaiak iraganean nolakoak ziren kontatzen hasita, Migel Arrieta Legarralde baserriko semearen testigantza izan genuen kontagai Aiurrin joan den urrian (664. zenbakia). Bertan, korrika saioen berri ematen hasita, hiru korrikalari biltzen dituen argazkia argitaratu genuen. Otxotorena, Irazu eta Arrieta zirela jarri guk, eta hor non hanka sartu haietako batekin! Otxotorena ez, baizik eta Joakin Iraola, Ezkerranea baserriko semea izan hura!

Oraindik orain, Joakin Iraolak berak eman dizkigu garai hartako Goiburu auzoko jaien inguruko zenbait xehetasun, bere garaian Migel Arrietak egin zigun kronika aberastuz. Biek ala biek, une historiko zehatz bati buruzko erretratu polita eskaini digute, argigarria giza komunitate nekazari batek auzo-jaiak eta aisialdia nola ospatzen zituen jakiteko orduan. Hain zuzen, historian atzera, 1936ko gerraren minak eta oroitzapen mikatzak zein gosetea pittin bat gainditzien hasita zegoen garaitsura (40ko hamarkadaren azken urtetan eta 50eko hasieratan) eramaten gaituzte.

Harrobian istripu larria

Joakin Iraola Buruntzako harrobi zaharrean, Aizkibelen, urtetan aritu zen lanean. Hasi berrian, 24 urterekin (1955) is-

Goiburuko korrikalari bizia

Goiburu bailarako Ezkerranea baserrian jaio zen Joakin Iraola Toledotxiki, 1931n. 1962an, Ezkerraneatik gertu dagoen Bekobarkaitzegi baserriko alaba Luisita Urdangarin Elosegirekin ezkondu zen, eta biak bertan bizi dira azken urtetan

tripu larria izan zuen: “Hondar gorria ateratzen genuen. Behin, harri galantak azpian harrapatu ninduen. Ni azpitik atera ezinik, eta inguruan ziren hamalau langileak denen artean harria gainetik kentzen saiatu ziren. Noizbait altxa zuten, eta hantxe, denak harria pultsuan zeukatela, zer da-eta, ni arrastaka tiratzeko pertsona falta! Berriz ere harria lurrean utzi behar! Orduan dena puskatuta geratu nintzen. Bigarrengo saikeran atera ninduten azpitik...

**BASERRITARRA
AUZOLANERA OHITUTA
DAGO, ETA FILOSOFIA
HORI JAIETARA
ERAMAN DUTE**

Hiru hilabete ospitalean egin nituen mugitu ezinik, kristo eginda”. Joakin osasunez hondatuta geratu zen geroztik, pel-bisa, uretra... Dena hautsita, eta pittin bat erren.

Galera fisikoak betiko berarekin eramatera etsia hartu behar izan zuen arren, harrobian segitu zuen lanean, beste zenbait urtetan. Harrobiaren lur janak kasik Azkorteko Santa Krutz ermita zaharra jateko zorian egon zeneko hura ere egokitu zitzaion bizitzea, 1970a aldera. “Harrobia Andoain aldera hazten zihoan, eta goiko ermita zaharra jateko zorian zela, guk mugitu genuen goiko partetik behealdera. Gurutzea bakarrik mantendu zen zaharretik. Berria harrokiko nagusiak eraiki zuen, Udalak lurzorua erosi eta gero”.

Goiburuko jaiak, Sanmielen ostean

Belaunaldiz belaunaldi Hernanirako joera eduki arren, Joakinnek eta ingurukoek beti eutsi izan diote goiburutar izatearen sentimendua. Era horretan, eta soldaduskara joan aurreko urtetan, Joakin modurik naturalean murgildu zen auzoko jaien antolakuntzan. Gogoan dituen zenbait jardun eta ekitaldien berri eman dizkigu. Nik 14-15 urte izango nituen gazte kuadrillan saltsan sartu nintzenean,

**GERRA OSTEKO
URTE ZAIENETAN ERE
FESTA ANTOLATZEKO
ILUSIOARI EUTSI
ZIOTEN**

eta hala ibili nintzen 1946-1952ko urte-boladan. Eusebio Orkaizagirre izaten genuen antolatzaile nagusia; soinu-jole, korrikalari, errifren bultzatzaile... Hark, Antsoko Antonio Lekuona panderojolea ondoan hartu, eta gazte guztiak atzetik eramaten gintuen. Igande arratsaldean Urnietako Sanmiel jaietako azken soinua bukatu, eta handik abiatzen ginen gure auzora Iruraingo kaskotik gora, horretara astelehenean goizean festari ekiteko”.

Urnietako Sanmieletako festa ofizialak kito egin bezain pronto hasten ziren Goiburu auzokoak, Errepublika aske moduan funtzionatzen zuen baserri auzoko jaiak alegia. Izan ere, bertakoen abildade librearen kontatzen zuen jaiak antolatzeko orduan.

Behin, karroza bat eratzea erabaki zuten, eta Urnietako kaleetan desfilean ibili ostean igo ziren Xoxoka aldera. Ikustekoa izan omen zen Orkaizagirreren soinupean gazteek karroza gainean eskaini zuten ikuskizuna, txantxarako eta irrirako gogoa gainezka zituztela, eta Urnietako herriarren harridura eraginez. Gaur egun auzoko gazteek eskaintzen duten herri antzerkiaren aitzindaritzat jo ote daitekeen ekintza hura, norok daki!

Baserriz baserri diru eskean ibiltzea ere beharrezko erritua izaten zuten, festa giroa zabal-tzeaz gain diru pixka bat biltzeko. “Urnietan goizeko 07:00tako meza entzun eta abiatzen ginen, Arantzubi baserrian hasi eta hortik behetik gora. Gu soinua joka sumatzen gintuztenean, neska gazteak leihora atera, eta sagar ustelak tiraka! Zelataka eta burlaka ere bai, eta orduan baserrietako ateetatik sartzen ginen, gelaz gela neska haiek harrapatzera...”.

Auzolana jaien antolakuntzan

Auzolanera ohitutako jendea izan da baserritarra, eta auzo jaietara ere eraman izan dute filosofia horixe. Baldintza askarretan jardun behar arren, festa antolatzeko ilusioa ezin baztertu zezaketen, Goiburuko gazte haiek. “Orduan ez zen traktoretik ez kristorik, eta kioskoa, adibidez, Pardaki aldeko basotik bizkarrean edo arrastaka ekarritako enborrekin osatzen genuen, gainean toldo zahararren bat jarrita; nonbait, galara-

zita zegoen zuhaitzak ebakitzea, eta behin, hor eduki genuen atzean Martin guarda kargua hartuz...”.

Beste gaiztakeria txikiren bat aitortu digu Joakinek: “Eusebio hori, behin, errifa jarri behar genuela eta jarri behar genuela esaka, gastutarako ez geneukala nahikoa-eta. Bada, galtzerdi pareta eta bazkaria bi lagunentzat jarri genituen. Saldu gabeko zenbakiak zakuan bildu, eta haiekin zozketa egin genuen. Atera kontuak!”.

Egitarauan, denetik

Baserritik baserrirako erromeriaz gain, jai egitaraua bi ekitaldi motekin osatzen zituzten. Batetik, kultur ekitaldiekin (bertso saioa, dantza-sueltoa, dantzaldia...), eta bestetik, kirolekin (lasterketa, enbor-trontza, soka-tira, bolo-jokoa...). Baserriko animaliekin lotzen diren probetarako joera, berriz, geroztikakoa dela uste du Joakinek: “tabernan haserretu, pikea sortu, eta hortik hasi ziren ateratzen idi apustuak! Bateko idiak zirela, besteko behorrak zirela..., Xoxokako festak hazten eta irabazten joan dira urtetan!”.

Kultur kutsuko ekitaldiak hartu ditu hizpide Joakinek lehenbizi: “Alejandro Ubillos Pagoalderdi baserrikoa bertsozale amorratua zen, eta kiosko famatu hartara bertsolari bikainak ekartzen zituen, Uztapide, Basarri, Lasarte, Mitxelena...; horiekin saioa betetzeko, auzoko Migel Arrieta eta Aritzola-bordako *Anatx* zaharra izaten ziren gehientsuenetan. Bestalde, dantza-sueltoke txapelketara Urnietatik bikoteak etortzen ziren, baina sekula ez ziren kapaz izaten Modesto Orkaizagirre eta Petronila Esnal auzotarrei irabazteko. Ilunabarrean dantzaldiaren txanda izaten zen, Los Alegres eta antzeko orkestekin”.

Egunean zehar, gizonezko askok ahal zuten tarte libre guztietan boloen jokoan aritzen zirela ziurtatu du Joakinek; bera zen lehenbizikoa, “egundoko afizioa baineukan! Orduak eta orduak bolo-jokoan pasatzen genituen, Mainguanea etxeko bolatokia. Eta ilunabar aldera, boloetan nahikoa egin, eta musika sentitzen genuenean, nesketara...”.

Mainguanea etxea izaten zen festa-zentroa, “bertan musika-

riak eta bertsolariak lotarako aukera edukitzeaz gain, jan-edana ere izaten zuten. Mostradorean bost litroko ardo barrika jartzen zuten eta handik baxoerdiak ateratzen ziren. Baina ez zen eztarriak freskatzeko toki bakarra izaten; batetik, orain Adarra deitzen den hori, lehen Goiko-Borda edo Xoxoka-zaharra zena irekitzen zuten; han bertsolariei afaltzen ematen bazieten, eta horiek kantari ekiten bazioten, entzulez lepa-hezurreraino jartzen zen! Besabin ere, bertako nagusiak atarian mostradorea jarri, eta barruko ukuilua jan-toki gisa prestatzen zuen”.

Lasterketarako afizio handia

Lehia, grina, norgehiagoka, sesioa... zeukaten kirolek ziurta zezaketen arrakasta Goiburu auzoan; esan beharrik ez gizon-nezkoentzat gordeta zegoela aisialdi klase hori. Kirol guztien artetik, garai hartan korrika zela punta-puntakoa iruditzen zaio Joakini. Ziurrenik, nor den gehiago erakusteko orduan, erraztasun handienak ematen dituen kirola delako. Norbera bestearen aurka, tresna edo animaliarik behar ez duena (beharririk ez aizkora zein egurrik, sega zein belarrik, idi zein probetarako harririk...). Zango pareta edukita arin eta hauspoa ere berdin, hortik aurrera... Apusturako ere, aski bi aldeak adostea!

Joakinek txikitan ezagutuak zituen emozioz beteriko norgehiagokak Marizuloko Fermin Txapartegi, Etzabalberriko Juanito Sarasola eta Zuloetako Martin Rekaldere artean. “Bestalde, aita ibilitakoa zen apustu kontuetan sesioa zeriola, eta behin gertu-gertutik bizi izan nuen Andoaingo Aldasoro Bentaberri eta biek Elketa baserriko Joxe Esnaolaren aurka jokatutuzten desafioa. Haiek ziren, haiek, aita egin zituen entrenamenduak! Etxe ondoan zirkuিতua egin zeukan, eta han ibiltzen zen bueltaka; iratzargailu bat erabiltzen zuen denbora neurtzeko, kronometroaren

XOXOKAKO GARAI BATEKO JAIETAN GUSTURA ARITU ZEN KORRIKA JOAKIN IRAOLA



1950eko soka-tira desafioan, Goiburuko tiralariak: Eskerretik hasita, Patxi Pagola, Joakin Iraola, Felix Izagirre, Migel Garmendia, Jose Mari Mujika, Fernando San Sebastian, eta Migel Arrieta. URNIETAKO UDAL ARTXIBOA

ordez. Kaletxikiko Berrozpe etxetik Beltranenera joan-etorria zen akordatu zutena; eta ilunabar batean, aita Bentaberriekin hitz eginda zeukan entrenamendura eraman ninduen Kaletxikira. Auzo hartako Loidi automobila gidatzen, eta bi korrikalariak lagun zituela. Bat automobilerik eta bestea korrika, txandakatzen, nire kontra. Kaletxikitik abiatu eta Urnietara aldera jo genuen eta atzean utzi nituen. Apustu eguna etorri bezperan, ordea, galarazi egin zieten errepideaz egitea, eta azkenean, Kaletxikiko Berrozpe etxeari itzuliak egitera konformatu behar izan zuten hiru apustulariek. Bikotea gailendu zen”.

Joakinek, ordurako bazekarren korrikarako joera. “Aipatu apustu horren aurretik, 15 bat urte nituela, arratsalde batean, aita anai bati eta bioi baldintza jarri zigun: jaietako lasterketan parte hartzekotan, lehenbizi berari aurea hartu beharko geniola, etxetik abiatu eta goiko kaskorra. Irabazi egin nion, eta hala lortu nuen libertatea Xoxokan aritzeko. Urnietako herritik etortzen zirenak batuta, igual 40 gazte bilduko ginen lasterka; etxe guztietan ume mordoa izaten baitzen! Xoxokatik atera eta Ormatzarreta aldera egiten zen zirkuিতua. Horrela, infantilen

mailan, bi urtetan irabazlea izan nintzen, Migel Arrieta atzetik izanik; zazpi pezetako saria jaso nuen orduan. Hirugarren urtean, Orkaizagirre, Arrieta eta hirurok azken aldera pare-parean heldu ginen. Elkarrekin iristea pentsatu genuen bidean, baina hor non Orkaizagirre hasi zen kristoren abailan azken metrotan! Nik bere parean jartzea lortu, ordea, eta azkenean, hark irabazi zuela eta nik irabazi nuela! Haiek istiluak, nor gailendu zen jakiteko!”.

Laugarren urtean, festa handia antolatu zuten Xoxokako plazan, jendea erruz erakarri zuena: Joakin eta Migel Arrieta batetik, eta Gipuzkoa mailan azkarrena zela erakutsia zuen Patxi Irazu *Garro* andoaingarria bestetik. Arrietak Aiurriko aipatu zenbakian kontatu zituen orduko gora beherak.

Gustura aritu zen urte haietan korrika Joakin; bide horretatik zailtzen segi zezakeen, baina uztea erabaki zuen soldaduskatik igaro ostean. Eta ez da damu. “Pena bakarra sentitzen dut, ez korrika ezta bolotan ere, sekula kopa xixtrin bat irabazi ez izana”. Soldaduskan zela, Zikuñagako festetan bolo txapelketan irabazi zituen 43 duroek eragindako poza, kopa batek gailendutuko luke Joakinengan ziurrenik...

Sokatiran, trontzan, harri jasotzen...

Herri kirolean zernahi egokia izaten zen gazteen arteko indar eta abilitate neurketak egiteko, eta bide batez, auzotarren interesa pizteko eta auzo-jai biziak antolatzeko.

Sokatiran, konparazio batera, Goiburuko mutilek ondoko Lategi bailarakoekin eduki zuten behin xextra galanta, Xoxokako plazan, 1950ean. Nork bere bailararen ohorea jokoan balego bezala aritu omen ziren indarka bi taldeak, ikusle mordoa garra-si batean animatzen zuten bitartean. “Aldapan egin zen desafioa. Aurreneko tiraldian, 45 segundoren ondoren nagusitu ginen. Bigarren goan, ordea, Lategikoak bizkor ibili ziren, eta tiraka hasi, gure taldea oraindik preparatzeko zegoela! Hamar segundo nahi-koak izan zituzten gu arrastaka eramateko. Martin Aldanondo zen jueza, eta harekin haserre bizian jardun genuen, baina alferrik! Lategikoak irabazle”.

Trontzan ere, bikote batek besteari desafioa luzatzearen “formulak” ez zuen hutsik egiten. Joakinek dio, umetan, sonatua izan zela Altxibarko Mariano eta Nikolas Lasarte anaiek Goizuetako bi mutilen aurka egindako indar neurketa bikoitza; Xoxokan lehenbizi eta Tolosako zeren plazan bigarrena. Nafarrak irabazle bitan. Geroztik, makina bat norgehiagoka jokatu izan dira Xoxokako plazan, eta Urnietako Erretratu Zaharrak liburuko (Inñistorra eta Larramendi Bazkuna, 2006) argazki eta testuak dira horren erakusle.

Harri jasotzeari ere beti zor izan zaio errespetua Goiburun jaietan, gaur bezainbat iraganean. “Donostiako San Martin kalean zegoen sagardotegitik harritzar bat ekarri genuen Xoxokara, eta Antsoko Bixente Elizegi eta Legarraldeko Nikasio Arrietaren arteko apustu ikusgarria antolatu, auzotarren txoramenerako. Egia esan, harritzarrek joko handia eman zuten egitarau ofizialaz aparte, izan ere, gauetan, zurruta pixka bat egin ondoren, gazteak hasten ziren desafioka, nork altxatu, nork ez. Behin, auzoko kankailu batek, harriari heldu bai, baina saiatsu arren ezin eta ezin, eta azkenean, hor erori dira biak lurrera, ziplo! Urnietan ere adituko ziren egoerak eragin zituen algarak!”.

Egoera epidemiologikoa hoberuntz doa

Intzidentzia tasa handiko egunak eta asteak atzean geratzen ari dira, bi herrietan eta eskualde osoan. Andoainen azken astean eman da jaitsierarik nabarmenena, eta Urnietan beste aste batez datuak on samarrak dira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urnietako egoera duela aste batzuk bideratu zen, eta Andoain bide beretik doa. Datuetan daude gako nagusiak. Aste honetan lau egunez jarraian kasu positiborik antzeman gabe egon gara Andoainen. Datu on horren parekorik topatzeko egutegian atzera joan behar da, abuztuaren 10era hain zuzen. Abenduaren 2tik 8ra 3 kasu positibo izan dira. Ezer gutxi aurreko asteetako erreferentzia hartzen hasita. Hilabete bat lehenago, antzeko datatan, 77 kasu positibo antzeman ziren.

Intzidentzia tasa, ondorioz, nabarmen jaitsi da. Koskarik handiena, gainera, aste honetan eman da. Alarma gorritik irten eta intzidentzia erdia baino gehiago jaitsi da. Abenduaren 1ean 515,22koa zen tasa. Astebetara 194,04koa.

Urnietako panorama ere laisaigarria da. Gipuzkoako datu txarrenen rankingaren buruan egotetik azken postuetara jaitsi da. 113,09koa da intzidentzia tasa, eta azken hiru asteetan egoera egonkor samarra dela esan daiteke.

Hurrengo asteetan bide bereetik jarraitzea izango da Olentzerok ekar diezaguken oparirik onena.

ANDOAIN, ASTEZ ASTE

Abenduak 2-8:

- 3 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 194,04.
- ID: 0,38.

Azaroak 25-abenduak 1:

- 26 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 515,22.
- ID: 0,65.

Azaroak 18-24:

- 51 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 796,25.
- ID: 0,82.

Azaroak 11-17:

- 68 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 970,22.
- ID: 0,92.

Azaroak 4-10:

- 77 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1057,21.
- ID: 1,18.

Urriak 28-Azaroak 3:

- 81 kasu positibo.

URNIETA, ASTEZ ASTE

Abenduak 2-8:

- 3 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 113,09.
- ID: 0,41.

Azaroak 25-abenduak 1:

- 4 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 274,64.
- ID: 0,89.

Azaroak 18-24:

- 13 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 306,95.
- ID: 0,58.

Azaroak 11-17:

- 6 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 533,12.
- ID: 0,32.

Azaroak 4-10:


- 27 kasu positibo.
- Intzidentzia tasa: 1647,82.
- ID: 0,59.

Urriak 28-Azaroak 3:

- 75 kasu positibo.

San Juan Bataiatzailea


Azaroaren 25etik kasu positiborik ez da agertu Andoaingo San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzan. Atzean geratzen ari da, beraz, urriaren 30eko agerraldiaren eragina. 10 kasu positibo izan ziren larunbat hartan, biharamunean 11 eta azaroaren 4an 22 ziren denera. Horietatik 19 egoiliarak eta 3 langileak. Bakartuta eduki zituzten PCR probatan positibo eman zuten 22 lagunak. Abuztuaz geroztik 98 lagun hil dira Gipuzkoako adinekoen egoitza ezberdinetan.



IREKIA

UCI-ZIUKO egoera egonkorra da

Ospitalean egoera larrian dagoen lagunen kopurua egonkor samarra da, eta azken egunetan jaitsia antzematen da. 130 lagun ziren asteburuan, eta abenduaren 8ko boletinean 125 zehaztu zuen Osakidetza. Ospitaleratze datuetan egunak dira 400 lagunen langa azpitik daudela.



IREKIA

Intzidentzia tasa Euskadi osoan

Azaroan 500eko langa gainetik zegoen Euskadi osoa, eta Gipuzkoa 1.000ra iritsi zen. Azken asteetan, ordea, etengabeko jaitsiera ematen ari da. Gipuzkoako datua da nabarmenena, grafikoan ondo ikus daitekeenez. Eskualdera etorrira, Beterri-Buruntza osoa eremu gorritik irten zen aurreko astean. Eta Andoain eta Urnieta herrietan 200eko intzidentzia mailaren azpirik daude. Oso albiste ona da hori, bi herrietan garapen epidemiologikoa onbideratzen ari den seinalea baita.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabaldutako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

www.aiurri.eus



Urnietako
udala

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA ANDOAIN

Urrian azkenaldiko errefusa kopururik handiena sortu dugu

Azken hilabeteetan Andoaingo datuek modu nabarmenean egin dute okerrera.

Errefusaren edukiontzi gris txipduna ezarri zenetik, 4 eguneko irekiera mugarekin (guztiz itxi ziren 2019ko otsaila erdialdean) ez genituen datu hain baxuak lortu.

Ipar Haizeatik gure kezka adierazi nahi dugu datu horiekin: argitaratutako azken datuen arabera, urrian Andoaindik 150.000 kg. baino gehiago bidali genituen errefusa gisa, eta gaikako bilketa %60 pasatxoan kokatu zen. Sistema berria hasi zenetik, oro har, eta jada koronabirusaren pandemiaren hasiera aldera edukiontziak zabalik utzi zirenean gertaturiko errefusaren hazkundera alde batera utzita, urrian azkenaldiko errefusa kopururik handiena sortu

dugu. Hori ez da batere ona, ez ingurumenarentzat, ez osasunarentzat, ez herritarron poltsikoarentzat; geroz eta errefusa gehiago sortu, orduan eta gehiago ordaintzen baitugu guztiok.

Herritarron aldetik arduraz jokatzeko garaia dela uste dugu, baita alderdi politikoen aldetik ere. Horregatik, zenbaitetan aipatu dugun moduan, guk lanean dihardugu eta jarraituko dugu gaikako bilketaren hazkundera aurrera eramateko eta honekin lotuta, ahalik eta errefusa kantitate txikiena lortzeko.

Bide horretan, “Andoaingo Ituna” gisa izendatu genuen dokumentua sortu genuen, aurrerapausoak emateko gaikako bilketan, betiere akordioan oinarrituta. Bertan, besteak beste, poltsa

konpostagarrien banaketarako 2 makina jartzea (jada prozesuan dagoena), edukiontziei pedala ipintzea irisgarritasuna hobetzeko (jada jarrita), modu narratsean dauden edukiontzi guneak kontrolatzea eta beharrezko neurriak hartzea egoera berbideratzeko, %70eko gaikako bilketa lortzea epe jakin batean (eta gutxienez, edozein kasutan, %65etik ez jaistea hilabetez hilabete gaikako bilketan), komertzio eta ostalaritza establezimenduei jasotzen zaizkien frakzio kopuruak gehitu eta zenbait hobekuntza landu, bertako partehartzaileak gehitu...

Hori, hala ere, guk uste genuen baino epe luzeagoa hartzen ari da denboran, baina espero dugu falta diren erantzunak laster ailegatzeko

eta behingoz neurri eraginkorrak hartu ahal izatea guztion adostasunarekin. Hala ez balitz, ulertuko genuke konpromiso falta dagoela eta ez dela garrantzia handia duen gaia, berez beharko lukeen bezala, garrantzia handia baitu.

Azkenik, guztiontzako mezua zabaldu nahi dugu: arduraz joka dezagun, ez utzi poltsak edukiontzi inguruetan botata eta horren ordez utzi ditzagun gaika sailkatuta dagokion edukiontziaren barnean, errespetatuta dezagun tamaina

handiko hondakinak ateratzeko egutegi eta ordutegia, hots, astelehenetan 20:00tatik aurrera atera, bilketa zerbitzuak asteartean goizean goiz hasten baitu bilketa; bestela, gainerako egunetan Aranaztegi –lehen Leizotz– poligonoan dagoen Andoaingo garbigunera eraman behar dira, hauek enbarazu egin gabe utzi eta edukiontziak ukitu gabe eta hauetarako bidea oztopatu gabe, organikoa beti poltsa konpostagarrian bota edo granelean bestela edukiontzi marroian...

"LANEAN JARRAITU BEHAR DA AHALIK ETA ERREFUSA KANTITATE TXIKIENA LORTZEKO"

"ARDURAZ JOKA DEZAGUN, EZ UTZI POLTSAK EDUKIONTZI INGURUETAN"

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idaizkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urnietan).
Diseinua: Goieta Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:  **ALIATUAK:**  

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

 **ANDOAINGO UDALA**  **URNIETAKO UDALA**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

 **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**
Mikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: 

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz



Etxeberrietan hasi eta Goikoplazaraino iritsi zen manifestazioa. Arqazki-bilduma eta bideoa Aiarri.eus gunean ikusgai. AIARRI

Andoaingo ostalarien manifestazio berria

Pandemiak egoera zail asko eragin ditu. Ostalaritza sektorea horietako bat da, eta astearteko manifestazioan argi geratu zen haserre daudela. Lan egiteko aukera izatea eskatzen ari dira. Eta ezinezkoa bada, sektorearen erreskatea

Erredakzioa ANDOAIN

Hotza, euria eta haizea ez ziren manifestazioarekin aurrera egiteko oztopo izan. Dozenaka lagun irten ziren astearte eguerdian, Etxeberrietta plazatik. Buruan ostalariak, eta haien segidan auzoetako edota kirol elkarteetako ordezkariak Goikoplazarako bidean abiatu ziren. Zumea kaletik eta Kale Nagusitik igarotzean ostalarien aldeko oihuak entzun ziren, eta baita zartagi, danbor eta txistu soinuak ere.

Megafonia erabilita egindako adierazpenean ostalariak haserre daudela nabari zen: “Penagarria da erakundeetara joatea eta gogoz kontra jasotzen gaituztela ikustea. Edo guri arreta ez eskaintzeko Covid-19 aitzakia erabiltzea. Baina fakturak, zergak eta bestelako tasak bidaltzeko oso azkar dabilza, horrelakoetan ez dira Covid-19aren beldur”.

Panorama beltza dela adierazi zuten: "Genituen aurrezkiak agortu ditugu, maileguak eskatu ditugu lehen itxierari aurre

egiteko. Baina bigarren itxiera honetan ez dizkigute mailegu berriak ematen".

Klase politikoari zuzendutako kritikaz beteta egon da adierazpena: “Instituzioen kezka bakarra Gabonak nola antolatzea besterik ez da, ostalaritzaren

sektorea zein egoeran dagoen gehiegi inporta gabe. Lanpostu asko hari batetik zintzilik daude”.

“Ostalaritza aurrera! Andoain-
go ostalariak aurrera!” oihuka-
tuz, herrikideen txalo artean
amaitu da manifestazioaren
osteko adierazpena.



Ostalari askok parte hartu zuen astearteko manifestazioan. AIURRI



Dirulaguntzak aurkezteko agerraldia egin zuen Udalak. **AIURRI**

Udalak iragarritako laguntza-lerroa

Andoaingo Udalak bost dirulaguntza lerroren berri eman du. Dirulaguntzen agindua abenduaren 16an argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 20 egun baliadun egongo dira eskabideak izapidetzeko. Agerraldian zehaztu zutenek, laguntza lerro hau beste erakundeek emandakoarekiko bateragarria da.

- Merkatariak, ostalaritziak eta bidaia-agentziak: 1.000 euroko laguntza zuzena. Laguntzak gehituz joan daitezke. Esaterako, jarduera garatzen den establezimendua alokairuan badago 500 euro gehiago. Langile kopuruaren arabera ere laguntza ezberdina izango da. 3-5 langile artean 500 euro, eta 6tik gorakoen kasuan 1.000 euro.
- Langile autonomoak. 500 euroko laguntza finkoa. Lan elkartuko kooperatibetako bazkideak ere eskatzaile izan daitezke.
- Andoaingo merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan jarduera ekonomikoa Covid-19ari aurre egiteko prestatzeko dirulaguntza lerroa. Gehienez ere 1.000 euroko dirulaguntza, merkatalgune bakoitzarentzat.
- Neurri higieniko-sanitarioak hartzeko laguntza lerroa. Herriko elkarte gastronomikoek laguntza eskatu ahal izango dute.
- Andoainen kultura- eta sormen-industrien barruan jarduera garatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei 500 euroko dirulaguntza.

Eskaera aurkezteko bideak

Eskabidea Andoaingo Udalaren erregistro elektronikoa edo Atarian aurkeztu ahal izango da, hitzordua telefonoz aurrez eskatuta: 943 300 830. Laguntza eskaera www.andoain.eus webgunean aurki daiteke “Diru-laguntzak/Sustapen ekonomikorako eta enplegurako laguntzak” izeneko.

"Proposamena motz geratzen da"

EH Bilduk abstentzioaren alde jo du, aztergai honetan: "Proposamena motz geratzan dela uste dugu, baina era berean, dirulaguntzak beharrezkoak direla iritzita ezezkorik ez ematea erabaki dugu eta abstentzioa izan da gure botoa. Egin ditugun proposamenak beste herri batzuetan onartutakoak dira, eta Andoaingo Udalak duen egoera ekonomikoarekin guztiz bateragarriak. Ez dugu guk egingo ez genukeen ezer proposatu. Atsekabez ikusten dugu udal gobernuaren funtzionamendua. Ostalariekin egin dituzten bileretan egon nahi genuen. Horrela eskatu genuen baina ukatu egin zitzaigun. Eta laguntza prozesuaren oinarrien idazketan ez da gurekin kontatu. Funtzionamendu hori guztiz legala dela, baina ez da Andoaingo herriarentzat behar dena, eta ez da krisi egoera honek eskatzen duena. Denon ekarpena eta elkarlana dela sustatu beharrekoa. Horrela egingo genuke guk behintzat".



Egape ikastolan bisitaldia egin eta gero, Lekaion bilera luzea egin zuten Udal ordezkariekin eta Aballarri guraso elkartearekin. AIURRI

Eusko legebiltzarkideen bisitaldia Egaperera

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ordezkariak Urnietara hurbildu ziren abenduaren lehenean, Egape Ikastolako DBHko egungo eraikina ezagutzera. Alderdi politiko guztietako ordezkariak bertaratu ziren

Mikel Arberas, Alba Cabrera URNIETA Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azpiegitura ezagutu ostean, bilera egin zuten Udalarekin, Aballarri Guraso elkartearekin eta baita Egape ikastolako zuzendaritza taldearekin ere. Bilerak luze jo zuen, eta hainbat afera eztabaidatu ziren bertan.

Egape ikastolako eraikina berrikuntzarik gabe egon da denbora luzean. Eskola berri baten proposamena luzatu zen duela ia bi hamarkada. Egungo azpiegiturak ez die erantzuten langileen eta ikasleen oinarriko beharrei: esaterako, ez dira betetzen irisgarritasun-irizpideak, ez eta mugikortasuna ere.

Bilkura amaituta, Aiurrik legebiltzarkideen iritzia jaso zuen:

Jose Manuel Gil legebiltzarkidea izan zen bisitaldian **PP-Ciudadanos** koalizioaren izenean: “Eskola oso gaizki dago, oso zaharra da. Ez ditu oinarriko segurtasun- eta erosotasun-baldintzak asebetetzen, ez haurrentzat, ez irakasleentzat. Eraikina desas-

tre hutsa da”. Harekin bat dator **Isabel Gonzalez Elkarrekin-Podemoseko** legebiltzarkidea: “Azpiegitura horrekin ez dago duintasunez lan egiteko aukerarik. Ikasleek eta langileek ez lukete jasan beharko urte gehiago egoera hau”.

Aballarri guraso elkarteak kideak ere aski larrituta daude, eraikina egoera txarrean dagoela diote: “Urnietako ikasle batek eragozpen fisikoa izango balu, ezingo luke eskola publikoan sartu, ikastetxe kontzertatura jo beharko luke. Zergatik?”. Eraikinaren gabezien zerrenda luzea osatu dezaketela gehitu dute: “Jangela hirugarren pisuan egotea ez da normala, patioan ezin dira ez anbulantziak, ez

"EZGAITASUN FISIKOA DUEN IKASLE BATEK EZINGO LUKE BERTAN IKASI. ZERGATIK?"

ABALLARRI GURASO ELKARTEA

suhiltzaileak sartu. Eta horrela beste hainbat gauza”.

Ibai Iriarte EH Bilduko legebiltzarkidea ere izan zen hitzorduan. “Udalak esan du lanean egon

Eraikin berria abian jartzeko plan partziala

Abenduaren 4ko plenoan Babiloniako 32 HEA-ren Plan Partzialari behin betiko onespina eman zitzaion, jeltzaleen aldeko botoarekin eta sozialisten eta EH Bilduko abstentzioarekin. Plan horren arabera, 340 etxebizitza eraikiko dira, baita Egapeko DBH-ren eraikin berria eta adineko pertsonentzako egoitza bat ere.

dela, baina guk mahaigaineratu dugu jarduna hain geldoa izatea harritzekoa dela. Guztiak ados gaude eraikinaren egoera ez dela ona, berritu beharra dagoela”. Gainera, PP-C's eskuineko koalizioak adierazi du eraikitzeke hogen urte behar izateak, “burokraziarekin eta gaitasun ezarekin” zerikusia izango duela ziurrenik.

Hari horri tiraka, **Jorge Segurado Urnietako alkateak** prozesua luzatzearen nondik norakoak adierazi ditu: “Hiri-garapenerako Plan Orokorra egin behar zen; horrez gain, Plan Partziala izatea ezinbestekoa zen, eraikin berria zehatz-mehatz non kokatu jakiteko. Denbora guztia hirigintza-tramiteetan joan da”.

Egapeko zuzendaritza taldearen eta Udalaren arteko aferan, guraso elkarteak eztabaidara batzea erabaki zuen: “Beti egin izan dira promesak, baina iritsi da mementoa non ikusi dugun promesa horiek ez direla egiazkoak”.

Legebiltzarreko EH Bilduk eskaera zerrenda egin du: Udalak tramitazioa azkartzea; Hezkuntza Saila eraikinaren proiektua lehenbailehen egiten has dadila; eta lurraren esleipena egin ahal izateko bi erakundearen arteko hitzarmena azkar baino lehen egitea. Ildo beretik jarraituz, Isabel Gonzalez Elkarrekin-Podemoseko ordezkariak bat egin du ezker abertzalearen proposamenarekin: “Egoera ja-sangaitza da”. Gauzak horrela, ezinbestekotzat ikusten du PP-Ciudadanoseko ordezkariak udalak beharrezko pausoak ematea: “Ikusi dugunagatik, Udalak du ardura eta horrelaxe onartu du alkateak”. Eraikina egoera txarrean dagoen arren, gurasoek azpimarratu dute oso ona dela eskuartean duten hezkuntza egitasmoa: “Azpiegitura eskasa bada ere, proiektu aurreratua eta egokia du Egape Ikastolak”.

Legebiltzarkideek esandakoari jaramon eginez gero, Lekaio-ko bileran tentsioa egon zen alkatearen eta oposizioko ordezkarien aldetik. Tentsio hori berriro azaleratu zen abenduaren 4ko batzarraldian.

"AZPIEGITURA ESKASA BADA ERE, PROIEKTU AURRERATUA DU EGAPE IKASTOLAK"

ABALLARRI GURASO ELKARTEA

Ika-mika Urnietako plenoan

Egape ikastolako zuzendaritzak DBHko eraikinaren korapiloa askatzeko ekimena hartu du, azken sasoi honetan. Ekimen hori eztabaida politikora iritsi da, eta azken egunetan bisitaldian etortziko goi kargudunak izan dira. Alde batetik, Jokin Bildarratz sailburua, eta bestetik, Eusko Legebiltzarreko hezkuntza batzordeko ordezkariak. Politikaren joko-zelaian murgildu da, eta Urnietako azken batzarraldian ika-mika gazia izan zen. Badira hilabeteak plenoan ohikoa baino tensio handiagoa dagoela EAJ-PNVren eta oposizioan dauden EH Bildu eta PSE-EEren artean. Azken plenoan, ordea, tentsioak koska bat gehiago egin zuen goruntz. Mikel Pagola alkate ohia jeltzaleen bozeramaile da plenoetan, eta abenduaren 4ko plenoan helburu argia izan zuen: Jeltzaleen kudeaketa defendatzea eta DBHko eraikinaren atzerapenari euren egiten zaizkien kritikei aurre egitea. Azken urteetako egoeraren eta erabakien errepasoa egin zuen, eta UDAl eta PSE-EEK iraganean izandako hainbat aipamen egin zituen. Horrek Herme Gonzalez sozialistaren haserre eragin zuen, eta Youtuben ikusgai dagoen bideoan antzeman daitekeenez, plenoa uzteko asmoa ondorioztatu daiteke. Ainara De Miguel kritiko agertu zen bereziki eztabaidarako erabiltzen diren hitzartzeekin, Pagolak azken hitza erabiltzeko garaian erabili zituen argudioak gaitzestearekin batera. Alkatea eta Udal idazkaria tartean sartu ziren, Udal prozeduraren inguruko xehetasunak eskaintzeko. Ez da giro ordezkariak duten kideen artean.



"Espainian bipartidismoa oso indartsua da oraindik, ez dakite politika egiten Euskadin bezala". EAJ-PNV

Andoni Urbistondo URNIETA

25 urte dira politikagintzan murgildu zenetik, Urnietako Udaletxean zinegotzi. Orduz geroztik, Foru Aldundian eta Eusko Legebiltzarrean aritu izan da, eta azken urtean Espainiako Senatuan. Aurrekontuak onartzeko lanean aritu dira Vaquero eta bere taldea, EAJ, eta kontuak pasa den astean atera ziren aurrera Kongresuan euren botoei esker (Senatuko tramitea abenduaren 22/23an bukatuko da). Toki bakoitzean izan duen esperientzia azaldu dio Aiurri-ri, eta esparru bat hautatzeko eskatuz, ez du zalantzarik egin: "herria, gertutasunagatik".

Osatu iezaguzu, mesedez, zure curriculum-a.

50 urte ditut, eta Urnietako Udalean ekin nion politikagintzari. Sei legealdi egin ditut bertan jarraian, 24 urte denera, gehienak alkatetza genuela, legegintzaldi bat oposizioan. Asko ikasi nuen lau urteko garai hartan, dena esate aldera. Eusko Legebiltzarrean ere zortzi urte egin nituen. Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea hautagai izateko deitu ninduen Joseba Egibarrek (Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea). Hautagaitza ez zen garaile izan, eta gutxira Eneko Goiaren bakantea bete nuen le-

“Hitzekoak gara, serioak; hori da gure balioa Madrilen”

MARIBEL VAQUERO EAJKO SENATARIA MADRILEN

Mende laurdena politikagintzan; Urnietan hasi, Eusko Legebiltzarrean eta Aldundian jarraitu, eta Senatuan bukatu; ez ditu fokuak, protagonismoa maite, talde lana baizik

gebiltzarrean, Goia Aldundian errepideetako Foru Diputatu jardunean hasi baitzen. Legebiltzarrean zortzi urte egin nituen orotara. Hiru urte eta erdi oposizioan, Ibarretxe Lehendakariarekin, Patxi Lopez Lehendakari zela, eta beste lau urte Iñigo

Urkullu Lehendakaria zela. Foru Aldundian ere aritu izan naiz, Bizikidetza eta Giza Eskubideetako zuzendari, eta Bizikidetza Lantzen programaren arduradun goren, Gipuzkoako herri gehienetan hara eta hona programa hori azaltzen. Senatuan urtebete

eskas daramat, 2019ko abenduan hartu baikeenuen kargua, bi hauteskunde deialdi egin ondoren. **Legealdia osatuko al da, behin aurrekontuak onartuta?**

Itxuraz bai. Alderdi Sozialista eta Elkarrekin-Podemos koalizioak aurrekontuak onartuta

indarra hartuko du, elkarren aurka mokoka ibiltzeari uzten badiote, eta aldaketa babestu zuten beste bazkide politikoen babesa izaten jarraitzen badute. **Hainbat esparru ezagutu dituzu. Zein nahiago duzu?**

Herria da aberasgarriena, eta legebiltzarkidea ondoren. Politikak plus bat dauka udal mailan: bizilagunak, herritarrak oso gertu dituzu, lagunak, familia... Horientzako ari zara, epe motzean lan egiten, eta zure jardunaren onurak, edo onurak ez direnak berehalakoak izan ohi dira.

Inoiz ez duzu alkate izateko tentatziarik izan?

Ez naiz postulatu, bigarren leerroan gusturago egon izan naiz beti. Bizitzan hartzen diren erabakiak dira, ez dut alkate gai izateko premiarik sumatu.

Ez daukazu beste politikari batzuek duten arreta komunikabideetan...

Gauzak horrela etorri dira. Agian ez naiz lehen leerroan egoteko politikaria izan. Niretzat talde lana oso garrantzitsua da, eta konfiantza dagoenean, lehenengo, bigarrena nor den, edo argazkian bat edo beste atera bigarren mailakoa da niretzat.

Deskriba iezaguzu EAJ alderdi politikoaren jarduna Senatuan.

Talde polita egiten dugu. Senatuan 10 kide gara, Kongresuan beste sei ordezkari. Senatuak Kongresuak onartzen duena berretsi behar izaten du, lege bilakatzeko. Senatuak aldaketak ere onar ditzake, eta hala bada, gaia Kongresura bueltatzen da. Askorentzat bi kamara berdina da, baina ez da hala. Senatu, ustez, estatuko ganbera territoriala da. Hautatze sistema ere ezberdina da, nahiz eta alderdi politikoen zerrendatan egon. Herritarrek bere ordezkariak zuzenean hautatzen dituzte. Alderdi abertzaleok, EAJ/PNVren kasuan bezala, Euskadiren interesak defendatzen ditugu, txapel bakarrekin aritzen gara. Ni Gipuzkoako senataria naiz, gipuzkoarrek hautatu naute, baina Euskadiren interesak defenditzen ditut Senatuan. PSOE, PP edo Podemos estatu mailako alderdiak diren neurrian estatu ikuspegia dute, eta Erkidego ezberdinen arteko orekak zaindu behar izaten dituzte. Beraien jarduteko modua zentralista da. **Nolakoa da zuen egunerokoa Madrilen?**

Ia astero joaten gara Madrilera. Akaso aste bat libratzen dugu,

hilabeteen, bertara joan gabe. Orain pandemiarekin telelan handia egiten ari gara, baina batzordeak eta plenoak presentzialak dira. Alegia, han egon behar duzu derrigor. Bi pleno egoten dira hilabeteen, eta tartean ba hainbat batzorde, hainbat arduradunen agerraldi publiko, eta horien jarraipena egin behar dut. Hainbat batzordeetako bozeramailea naiz: Agenda 2030, Garraio, Etxebizitza eta Hiri Agenda, Autonomia Erkidegoetako Batzorde Orokorra eta Familia, Haur eta Gazteria batzordeak. Pleno asteak direnean astelehenetan joaten naiz Madriler, eta normalean ostegunean bueltatzen naiz etxera.

Eta lo eta beste?

Hoteletan ematen dugu astea.

Ze lan sistema daramazue?

Senatutik gertu egoten saiatzen gara. Senatuan bulego txiki bat dugu ordezkari bakoitzak, eta taldeko bilerak egiteko-eta badaude bilera gelak. Astea prestatzeko Estefania Beltran de Heredia eta Imanol Landa senatari kideekin biltzen naiz, bozeramaile eta mahaiko kideak direlako, eta ondoren taldeko bilera ere egiten dugu. Astearte arratsean kontrol plenoa izaten da, eta asteazken eta ostegunetan mozioak, lege proposamenak eta beste aztertzen dira.

Diskurtsoak zuk prestatzen dituzu?

Prentsa arduradunen bat daukazue taldean?

Diskurtsoak normalean norberak prestatzen ditu. Guk taldeko komunikazioaz arduratzen den langile bat dugu, eta mahaiko kideari eta taldeari asistentzia ematen dioten beste hiru lagun daude. Asistentziako langile horiek laguntza eman behar diete 10 senatariei 42 komisiio eta plenoetan. Talde txikietan, gaiak eta batzordeak senatari gutxiagoren artean banatzen dira, eta gure kasuan, bakoitzak 4-5 batzordeetako ardura dugu.

Erabakiak kolegiatuak dira, taldean hartzen dira?

Askotan ez daukazu astirik taldeari galdetzeko. Mozio bat proposatzen du norbaitek, ni puntu batzuk sartzen saiatzen naiz, baina agian beste talde batzuk sartutako puntuekin ez nago ados, eta gure taldearen marra gorriak pasatzen baditu, ezezkoa bozkatuko dut. Senatuko tramitazioan ezin da mozio bat puntuz puntu bozkatu, bere osotasunean baizik.



"Podemos-ek ez dio EAJri tamaina hartzen". AIURRI

Alegia, batzuetan ez daukazula kontsultak egin, edota hausnarketa tarte bat hartzeko aukerarik, bozkatu baino lehen.

Gure jardunaren egoeretako bat da hori. Senatari denari halako gutxieneko ezagutza eta irizpide osatu bat daukala suposatzen zaio, bere kabuz erabaki garrantzitsuak hartzeko gai dela. Kongresura edo Senatura ez da hasi berria den norbait bidaltzen, alderdi politikoa ezagutzen duen norbait, programa, mekanismoa, hango funtzionamendua ezagutzen duena baizik. Nik Eusko Legebiltzarreko martxa ezagutzen dut, badut eskarmentua. Hala ere, Eusko Legebiltzarren funtzionamendua eta Espainiako Gorteetako, Senatuko behintzat, ezberdinak dira. Espainian bipartidismoa oso indartsua da oraindik, ez dakite politika egiten Euskadin bezala. PSOE eta PP, bi alderdi nagusiak ez dira guztiz kontziente zein garrantzitsuak garen beste alderdi politikoko guztiak.

Estresa, deserotasuna sortzen al du Madrilen aste osoa bizi behar izateak? Hotela, familia Urnietan, lan karga... Aisirako tarterik bai?

Gutxi. Kongresutik Senatura dagoen tarte baina ez dut eza gutzen. Callao, Sol, zonalde horretan ondo moldatzen naiz, baina ez dugu kale bizitza handirik egiten. Zozo samarrak izango garelako agian, edo pandemiagatik... Lana egin ondoren nonbait afaltzen dugu, hoteletik kanpo, baina handik hotelera bueltatzen gara. Eta hotelarena... Lana da, jende asko ibiltzen da horrela.

Kanpora begira nahiko irudi itsusia transmititzen dute bai Kongresuak,

baita Senatuak ere. Jende jantzia eta ikasia biltzen den tokia baino, oilategia dirudi sarri...

Hala da, baina gu ez gaude joko horretan. EAJ taldeak ez du probokatzen. Gaiak ondo prestatzen saiatzen gara, gure ideiak defenditu tinko, eta seriotasun apur bat erakutsi. EAJk urtetan zerbait balioan jarri badu Madrilen, hori seriotasuna da. Gure ezaugarria hori dela esango nuke. Gurekin negoziatu nahi dutenek badakite zer egin behar duten, ze konpromiso bete. Postureo kontuetan gurekin jai dute. Agian ez gara telebistan agertzen garen lehenak izango, ez dugulako iskanbilarik sortzen, baina seriotasuna baloratu egiten da Madrilen, hala onartu izan digute alderdi askok. Hitzeko pertsonak garelako baloratzen dute.

Eta pertsonalki, iskanbilak-eta ikusten dituzunean, zer pentsatzen duzu?

Iskanbila sortzen dutenek oraindik hauteskunde kanpaina betean baleude bezala jokatzeko dutela esango nuke. PSOEk komeria nahiko badu Podemos-ekin daukan sokatirarekin, eta Podemos bera ez dakit Gobernu koalizio batean dagoen alderdia dela konturatzen ote den. Gobernu programa bat du, Gobernu akordio bat. Alegia, Gobernua da, eta hala izanda, ezin da pankartaren aurrean eta atzean egon aldi berean. Edo Gobernua zara, edo ez zara. Oreka zailetan dabil. Sozialisten artean egoera hori batzuk hobeto daramate, besteek ez hainbeste. PPK, aldiz, ez du sinesten koalizio horretan, VOX beste mundu batean dago, eta Ciudadanos ere ez desagertzeko borrokan... Pertsonalki VOX-eko ordezkariak lasai asko botatzen

dituzten aldarriek arduratzen naute gehien, ez baitute, esaterako, emakume eta gizonen arteko berdintasunean sinesten. Madrilen eskuin-ezker paradigmaman oinarritu izan da politika azken urteetan, eta ez nator bat horrekin.

Ze paradigma erabiltzen duzu zuk, bada, politika azaltzeko?

Nire abiapuntua da Estatuak eta Podemos-ek bereziki Madrilen, baina Euskadin ere bai, ez diotela EAJri tamaina hartzen, eskuineko alderditzat jotzen dutela. Nire ustez ez da horrela, politika progresistak egiten baititugu. Ni ez naiz eskuin edo ezkerreko gisa definitzen. Ni abertzaletasuna eta humanismoarekin identifikatzen naiz. Demokrazian, aukera berdintasunean, progresismoan sinesten dut. EAJn eskuin, zentro eta ezkerreko jendea dago, eta hori da ulertzen ez dutena. Eskuineko paradigmaren baitan identifikatzen dute EAJ, eta EAJ ez da paradigma horietan mugitzen. Pausoa galduta dabilta gurekin, nola jokatu ez dakitela. Gutxieneko soldata bermatzerakoan, gizarte politiketan edota 2030 agendan EAJ askok uste dutena baino progresistagoa izan dela esango nuke.

Senatari, kongresisten artean nolakoa da harremana?

Urtebete eskas daramat, eta ez dut jendea ezagutzeko aukerarik izan.

Jendeak ze pertzepzio du zuen jardunaren inguruan?

Txarra.

Jornal handia irabazten duzuen pribilegiatuak zaretela diote askok.

Jendeak ba al daki ze soldata daukagun, nahiz eta publikoa izan? Ezin gara kexatu, gauzak dauden bezala, baina zerekin konparatuta irabazten dugu asko? Zenbat diru joaten zaigu Madrilen bizitzeko? Lana egiten dela ziurtatzen dut. Akaso lan hori ez da jendearen begi eta belarrietara iristen, baina lana egin, egiten da, eta ordu asko gainera. Soldaten gaia azaltzea zaila da eta demagogia asko dago, batez ere krisialdi egoeretan.

Aurrekontu eztabaida betean egon zarete. Onartu dira.

Bai. Sanchez presidente izendatzea ahalbideratu zuten alderdien babes berberarekin.

EAJk baiezkkoa eman du.

Bai. Gure emendakinak sartu, negoziatu eta aurrekontuak babestu ditugu.

Zer pentsatua ematen du aurrekontuak EAJ, ERC, EHBildu eta besteren babesari esker onartu izana...

Benoa, egoera berria da, ezta? Bildu Madrilen ez da hain determinantea, baina Nafarroan, aldiz, bai. Esan nahi dut, Sanchezek ez du Bilduren botorik behar Madrilen, baina Txibitek Nafarroan bai. Joko politikoak dira... ERC ere lehia bizian dago Katalunian Junts per Cat alderdiarekin, hauteskundeak dituzte han laster. PSOEk zer nahiago du, ERC Katalunian gobernatzen ikusi, jarrera independentista moderatuago bat lortzeko? Hala dirudi. Xake partida baten modukoa da egoera, joko taula asko daude, eta batzuk partxisean jolasten ari gara edo dira, eta besteak xakean... Konplikatu da ulertzea. Hau ez da matematika, non bi gehi bi lau diren. Madrilek hori dauka, politika egiteko beste modu bat da, eta niri Euskadikoa ulerterrazagoa egiten ari zait, nahiz eta azken urteotan espainiaritzen ari dela dirudien.

EAJ eta EH Bilduren harremanaz milaka orri bete dira. Zer dio EAJko senatari batek horren inguruan? Pikerik bada, ez?

Tratu ona daukat Gorka Elejabarrieta eta Idurre Bideguren Bilduko senatariarekin. Harreman pertsonal ona dugu. Herri berdinean bizi gara, eta askotan interes berberak ditugu. Pikerik dagoenik ez nuke esango. Akaso haserre puntu bat bada, gure alderdian, hainbestetan entzun baitugu dilista plater baten truke saldu dugula geure burua... Orain eurak plater txikiago baten truke saldu dira!!! Testu idatzi batean ironia sumatzen ez denez, jarri une honetan ironiaz mintzatzen ari naizela...

Hizlari apartak daude Madrilen. Nor da zure erreferentzi, nori begiratzen diozu?

Euskadin Joseba Egibarri. Madrilen, Aitor Esteban esango nuke, erreferentzia niretzat eta EAJko ez den jende askorentzat. ERCko diputatu batek esan zidan, ez aspaldi: "Aitor onena da. Berak hitz egiten duenean denak isiltzen gara". Hizlari bikaina da. Izango dira hizlari apartak beste alderdietan ere, baina pulpitura igo eta mitinak ematen dituzte, eta Kongresua eta Senatura ez dira txaloak jasotzeko tokia. Gu ez gaude txaloak jasotzeko.



Ez ohikoa bada ere, bi karobiak elkarren ondoan daude. Familia giroan bisitaldia egiteko toki aproposa da. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Burdinak jendaurrean erakutsi du, azken hilabeteotan egindako lana. Eta ekitaldira udal ordezkariak gonbidatu zituzten.

Joseba Urrutia berreskurapen lanean aritu den boluntarioetako batek adierazi zuenez, koronabirusaren urte tamalgarri honetan eurentzat albiste on bakarrenetakoa izan da Erdoiztako karobiaren berreskurapena: "Desagertzeaz zegoen, sasi eta arbolen artean, eta txiripaz topatu genuen. 2008an berreskuratu genuen ondoan dago".

Bigarren karobi horrek, gainera, berezitasuna baduela erantsi dute: "Lur azpitik doan 13 metroko pasilloa edo *tiroa* zeukala ohartu ginen, eta azalera-tuta geratu da". *Tiroa*, labeak azpitik oxigenoa hartzeko erakitzen zuten pasadizoari deitzen zaio".

Aurreko astean egin zuten aurkezpen ekitaldian azken hilabeteetako lanak xehetu zituzten: "*Tiro* horren harri gehienak bazter batean zeuden, noizbait beste zeregin batzuetarako eramateko; ehunka kilokoak dira, eta ederki kosta zaigu denak bere hasierako tokira eramaten. Karobiaren inguruan zegoen metro kubiko lur ugari ere mugitu behar izan dugu".

Bisitaldia merezi duen gunea da Burdinak herrikideei, elkartei, eta ikastetxeei gerturatzeke gonbitea luzatu zien.

Egunotan bisitatu beharrekoa

Sorabillako goi partean, Garate eta Pagarte baserrietara doan pistaren ondo-ondoan aurki daitezke eraberritutako bi karobiak. Erdoizta baserritik gertu daude, eta bisitaldia merezi duen eremua da. Eraberritze lanaz Burdina arduratu da



Udal ordezkariak eta Burdinako kideak Erdoiztako karobiaren parean. AIURRI

Alde horretatik, Burdina ibilbide gidatuak antolatzeke prest agertu da: "Geure arbasoen ohi-turak eta lanbideak eta geure ondare historikoa zabaltzea Burdinaren bigarren helburu nagusia da, behin berreskurapen lanak amaituta". Dagoeneko bisitatu daitezkeen eremua da, eta familia giroan egiteko oso interesgarria: "Familia giroan txango polita egiteko moduko parajea da haxe, kontuan hartuta inguruan telegrafoaren aztarnak ere badaudela".

Bi karobi elkarren ondoan

Ander Otañok karobiari buruzko beste zenbait ezaugarri tekniko zein historiko azaldu zituen: "Ez da ohikoa bi karobi batera aurkitzea, eta horrek adieraz dezake biak ere industria-erabilera bideratuko zirela. Hone-lako karobiak eta burdinolak industrializazioaren protohistoriatzat jo behar ditugu".

Karea Donostia aldera eramango zutela uste dute Burdinako kideek, Oria ibaian barrena: "Hemendik ateratako karea Donostia aldera eramango zuten, eta horretarako, bere emana Oria ibaian isurtzen duen Abaloiz ibaiaz baliatzen ziren". Gaia eta garaia ikertu duten adituen arabera, antzeko karobietan sei pertsonako taldeak aritzen ziren lanean: "Normalean inguruko langaiak erabiltzen zituzten, harria eta egurra. Zazpi bat egunez egiten zuten lan, gau eta egun. Lan gogorra inondik ere; etengabe, sutako egurra eta harriak tonaka ekarri behar izaten zituzten".

Udalaren eskertza

Burdinak Andoaingo Udala gonbidatu zuen ekitaldira. Maider Lainez alkatea eta Txitxu Ruiz kultur zinegotzia izan ziren bertan. Biek ere eskerrona adierazi zioten Burdinari. Lainezen esanetan, "Hartu duzun lan itzelagatik eta andoaindarren ondarea berreskuratzen, ikertzen eta zabaltzen ari zaretelako eskerrik asko". Udalak karobien ondoan informazio panelak ipintzeko konpromisoa hartu du.

"FAMILIA GIROAN TXANGO POLITA EGITEKO MODUKO PARAJEA DA ERDOIZTAKOA"



Maialen Mujiika eta Aziz Mounpe. AIURRI

Afrikar erroko josturak

Oihal afrikarrez egindako produktuen eskaintza zabala du Puochi nah proiektuak, Kamerungo Bamun herria oinarri. Kolore biziko oihalekin egiten du lan bikoteak, wax delakoekin

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Puochi nah diote Kamerungo Bamun herrian elkar agurtzeko, “behin ikusi garenez gero, berriro ere ikusiko garelakoan” adierazteko, alegia. Hari horri tiraka ekin zioten Aziz Mounpek eta Maialen Mujiikak *Puochi nah* proiektuari: “Polita iruditu zitzaigun esapidea, gure eskaintza probatu duenak berriro ere gugana jo dezakeela esateko modua baita” dio Mujikak. Duela urtebete inguru jarri zuten martxan proiektua, eta mota guztietako produktuak egiten dituzte oihal afrikarrak oinarri hartuta, ileko zintetatik hasi eta kuxinetaraino.

Jatorri afrikarrekoa da Mounpe, Kamerungo Bamun etniakoa, hain zuzen ere. Haurra zelarik, josteko makina zaharrarekin aritzen zen lanean ama, eta bere

arrebek ere maiz josten zuten, amak erakutsita. Berak, ordea, ez zuen sekula ikasi, gertutik begiratu besterik ez zuen egiten. Hala, joan den urtean bere iraganarekin egin zuen topo, Mujikarekin batera Emaus dendara altzariak erostera joan zenean. Amaren josteko makinaren berdina zen singer zahar bat aurkitu zuten, baita erosi ere. Etxera eraman eta bizkarroiak kendu genizkio. Egun hori bera du abiapuntu *Puochi nah* proiektuak.

Mujikak gogoan du egitasmoari “aurrikuspen handirik gabe” ekin ziotela: “Guretzat hasi ginen gauzak sortzen, eta, ondoren, ingurukoentzat”. Itsu-itsuan hasi baziren ere, berehala zabaldu zuten bezero-sarea, sase-sozialei erabilera ematean. Gipuzkoara mugatzen zen beren

eskaria; egun, ordea, Andaluziako eta Kataluniako jendeak, besteak beste, badu haien berri.

Kolore biziko oihalekin egiten du lan bikoteak, wax delakoekin,



Puochi nah postua. AIURRI

alegia. Horrelaxe deitzen zaie argizaria dutelako; ehuna bustitzea eragozten du horrek. Gehienbat, Afrika erdi-mendebalearekin lotu du Mujikak oihal mota horren erabilera, ez baita soilik Kamerungo erakusle; hala ere, gehitu du, maiz, oso bestelakoa den herrialdeetan dutela oihalek jatorria: “Enpresa handienak Europan daude, Holanda aldean. Jatorriz afrikarra den oihala da, baina hori ere europarrek ustiatu egin dute. Saiatzten gara ekoizle horiei uko egin eta tokikoei erosten, gure filosofiarekin bat datorrelako”. Hala, Mounperen familiarekin harremanetan ipini, aukeraketa egin eta bidali egiten dizkiete Urnieta lanerako behar dituzten ehunak. Osasun-larrialdia zela medio, mugak itxita egon ziren denbora luzez eta beren jarduna berrasmatu beharrean, Bilboko zein Madrilgo stock handietatik eskuratu zituzten oihalak.

Hurbileko hartu-emanen

Bezeroarekin konplizitatea izaten saiatzen dira bi artisauak. Gainera, gustuko dute erosleen nahiak entzutea, eta Mujikak nabarmendu du iradokizun oro ongi etorria izaten dela: “Josten goazen heinean, argazkiak bidaltzen dizkiegu berezoei, prozesua partekatzen dugu eurekin. Polita da, erosten duenak parte hartzen duelako etxera eramango duen produktuaren sormen-prozesuan”. Eskaintza zabala dute esku artean, hala nola, koleteroak, koadernoak, gerriko poltsak, arropa eta baita musukoak ere. Osasun-larrialdi egotan ekin zioten azken horiek egiteari, zalantzak izan ostean. Podologia klinika batean egiten du lan beren lagun batek, eta berrerabilgarriak ziren musukoekin lan egin nahi zuten bertan. Horrenbestez, proposamen horretarik abiatuta ekin zioten musukoak egiteari, homologatutako oihalearekin. Denborarekin, Mujikaren esanetan, jende anitzak darama wax oihaleko musukoa soinean: “Azken batean, gure egitasmoa ezagutarazten lagundu dute musukoek”.

"GURE EGITASMOA EZAGUTARAZTEN LAGUNDU DUTE MUSUKOEK"

MAIALEN MUJIKA

Azokak, loturak ehuntzeko

Puochi nah proiektuak ez du denda fisikorik, eta sare sozialetara jo behar du haiekin harremanetan jarri nahi duen orok. Tamalez, udak aberatsa behar zuen bikotearentzat, izan ere, azoka gehien egoten den urteko sasoia da. Saldu ez ezik, proiektua ezagutzeko eta sortzaileen arteko elkarreragina elikatzen funtsezkoak dira horrelakoak; ekitaldi asko bertan behera gelditu arren, Mujikak nabarmendu nahi izan du herritarrek artisauak babesteko izan duten jarrera: “Jende asko kezkatu da gurekin. Pila bat eskertu dugu jasotako babesa. Kontzientziatua dago jendea.”

Gabonak ate joka diren honetan, “Gabonetako afro azokan” hartuko dute parte. Diziplina anitzeko artisauak eta sortzaileak batzen ditu azoka birutal horrek, jatorri afrikarrekoak guztiak. Hilaren zazpian ipini zen martxan, eta helburua da astelehenero sortzaile afrikarren negozioen berri ematea, bai ikusgarritasuna emateko, bai opariak egiteko ideiak proposatzeko. Mounpe eta Mujikaren txanda hilaren erdialdean izango da.

Inork gutxiak zuen bikotearen berri duela hilabete batzuk. Baina jada asko dira beren produktuak soinean daramatzaten herritarrak. Afrikako kolorez margotu dituzte Urnieta zein inguruetako kaleak, eta bizitasuna eman diote pandemiak eragin duen egunerokotasun monokromoari. Kamerungo lur zati bat ekarri dute Euskal Herrira, eta herritarrengana hurbildu, lehen aldiz bai, baina azkena izango ez delakoan. Izan ere, Bamun herrian dioten lez, *Puochi nah*, bikote.



Beloki anaiak eta Ormaetxea. AIURRI



Maizorri taldeko txalapartariak, Juan Godoy eta Jon Urtasun. AIURRI



Goiatz Salbador kantaria. AIURRI



Arantza Aguado eta Alex Huitzi Euskaraldiko kideak. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Goiburuko San Esteban ermitan amaiera eman zioten Euskaraldiari. Ainhua Aiertzak aurkeztutako ekitaldian, oso datu onak eskaini ziren. Orotara, aurtengoan 1.999 lagunek parte hartu dute Euskaraldian. Gehien-gehienak *ahobizi* rolean, eta gutxiago *belarriprest* modura. Datu zehatzak hauexek dira: 1628 *ahobizi*, eta 371 *belarriprest*. Horrez, gain, Andoainen 104 *arigune* egokitu dira. Euskaraz mintzatzeko gu-neak dira merkatalguneetan, lantokietan edota ikastetxeetan zehaztu direnak. Euskararen lurraldea izan dira ia bi astez.

Zailtasunak agerikoak izan badira ere, Andoainen Euskaraldiari hasiera eta amaiera emateko aukera izan da. Eta ez da gutxi, pandemia betean gaudelako. Eskertu behar da, beraz, batzordearen ahalegina. Eta baita herrikideena ere.

Euskaraldiaren amaiera-ekitaldia

Zailtasunak agerikoak izan badira ere, Andoainen Euskaraldiari hasiera eta amaiera emateko aukera izan da. Eskertu behar da, beraz, batzordearen ahalegina. Eta baita herrikideena ere. Bi mila lagunek eman dute izena aurtengo edizioan

Edizio berriari begira *belarriprest* taldea handitzea izango litzateke erronka. Horixe baita Andoainen euskararen erabilera areagotzeko hauspotu behar den segmentua. Goiburuko ekitaldian Basteron abiatutakoari amaiera txukuna eman zioten. Musika,

bertsoa eta txalaparta izan ziren osagai nagusiak, eta baita euskararen bidean sakontzeko mezuak ere.

Euskal Herriko zuzendaritzak ere balorazio ona egin du: "Bigarren Euskaraldia ere ariketa sozial masiboa izan da. Aurten

179.780 lagunek eman dugu izena. Aurreikuspenak egitea zaila den urtean, oso pozgarria da milaka lagunen konpromisoa berretsi dela eta aurreko edizioan parte hartu ez zuen *ahobizi* eta *belarriprest* asko ariketara batu dela ikustea".

Bertsoak Euskaraldiari jarriak

Beloki anaiak eta Ormaetxea hiru rolak ordezkatu zituzten.

Ahobizi

Euskaraldiari jarria diot aspaldidanik arreta nere euskera ez da egoten harri azpian gordeta animo handiz etorri naiz ni ahoa hitzez beteta nik ahobizi rola hartu det euskaldun zaharra naiz eta

Euskaraldiak batuko gaitu Hainbat senide ta lagun Andoaindarrok hondar-alea Batera jarri dezagun gure herriko txoko denetan euskeraz nahi dugu jardun txapa jantzita edota gabe jarrai dezagun euskaldun.

Belarriprest

Belarriprest naiz eta bertso hau egin det ni aurkezteko belarri ona izan behar da mezua barneratzeko bada garaia gure konplexu ta lotsa denak kentzeko gai naiz edonor entzuteko ta edozeini ulertzeko.

Izena eman edo ez eman hasieran nintzen dudan baina gerora ohartu nintzen zenbait maitatzen zaitudan halaber ere kosta izan zait geratuz saiatzeko mugan ea hurrengo Euskaraldian beste txapa janzten dudan.

Arigunea

Euskaraldia izan liteke ekintza on ta xumea baina eragin dezake denda, kale ta ingurunea konfiantza faltak egiten du sor dadin isilunea beraz praktikak ezinbesteko behar du arigunea.

Ikasketetan jarri nahi nuke oraintxe bertan begia jende mordo euskaldundu du horixe dugu egia Korrika ere antolatzen du bi urtez behin alegia hortaz arigune handiena daukagu euskaltegia.



Ikuskizuna osorik abenduaren 26an eskainiko dute ETB1n, "Oholtza" saioan. Saioan zehar zenbait urnietarren testigantzak azalduko dira. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Lourdes Iriondo gogoan hartzen duen "Ez gaude konforme eta hamaika lore" ikuskizuna estreinatu zuten Basteron, joan den ostiralean. Lulu ezizeneko emakume aitzindaria, ameslaria eta inkonformista nabarmentzen du ikuskizunak, hitz, dantza eta musika ederrez baliaturik horretarako.

Urnietako kantariaren heriotza 15. urteurrenaren harira sortu da ikuskizuna, Agurtzane Intxaurragak zuzenduta. Olatz Salbadorrek, Iriondoren erretratu pertsonala egiteaz gain, euskal kantari eta kultur gile gisa egindako ibilbidea deskribatzen du. Alaia Martin aurkezte-narratzaileak jartzen du haria, eta musika, txalaparta eta dantzak hartzen dute oholtza bakarka nahiz elkarrekin, ordu bete irautean duen ikuskizun polit bezain hunkigarrian.

Lourdesen hiru bizi-taupadetan jartzen ditu begiak ikuskizunak. Lehenbizikoz, frankismoak estuki lotua zeukan gizarteko gaztediaren garrasia ("Ez gaude konforme") pertsonifikatzen duelako Iriondok.

Bigarrenik, bere emakumetasuna nabarmentzen da; belau-naldi inkorformistaren loraldian itzalean eta isilik parte hartu zuten emakume anonimo edo "petalo garden ikusezin"-en ordezkari izan zelako, beren lekua hura ez zela sentiarazi nahi zieten haiei, arrazoa ukatuz, bide arantzatsuetan

Lourdes Iriondori gorazarre

Bastero Kulturguneko Auditorioan Urnietako kantari ezaguna gogoan hartu zuten, ikuskizun dotorearekin. Berezi egin zuten bi arrazoi nagusi zeuden: Iriondok debuta Andoainen egin izana eta ekitaldiak Leteren heriotzaren urteurrenarekin bat egitea

barrena bidea urratu zutenena alegia.

Eta hirugarrenik, gaitzak jotako emakume ahularen barne-indar ahaltsua erakutsi zuelako.

Aldi berean, Iriondok belau-nalditik belau-naldira bete zuen

zubigilearen funtzioa azpimarratzen da, eta ideia horixe pertsonifikatzen dute bi gitarrek, akustikoa eta elektrikoa; ikuskizun osoaren lekuko pribilegiatuak dira, albo batetik zela-tari.

Urnietako umeak maite

Iriondok zubigilegintzan eta kultur-transmisioan jokatu zuen paperan sakonduz, ikuskizunak ez du ahazten Urnietako haurren kultur heziketan egin zuen ahal-egin berebizikoa. Ipuinak eta

antzerkiak idatzi baitzituen haientzako, biziki maite zuenez umeen konpainia. Iriondoren bizitzaren pasarte hori islatzeko, Easo abesbatzako haur kantariak eta Ana Belen Garcia Urnietako Lourdes Iriondo musika eskolako irakasle eta piano jole andoaindarrak *Amaren bularra* eta *Tiriki tauki mailuaren hotsa* abestiak interpretatzen dituzte.

Ikuskizuna osorik abenduaren 26an eskainiko dute ETB1n, "Oholtza" saioan.

Parte-hartzaileak:

- Alaia Martin bertsolaria eta aurkezlea.
- Olatz Salvador, Paule Bilbao eta Josune Arakistain abeslariak.
- Antton Valverde piano jole eta abeslaria.
- Idoia Hernandez eta Ana Belen Garcia piano joleak.
- Noemi Viana, Myriam Perez Cazabon eta Oihana Vesga dantzariak Oinkari dantza taldeko kideak.
- Bihotz taldeko txalapartariak.
- Haurren Easo abesbatza.

1964an lehen emanaldia, Andoainen

Berez, jaialdia, 1963ko azaroan abian jarri zen Aita Larramendi ikastola klandestinoaren alde antolatu zen, baina Huizik "ongintzazko egintza" gisa aurkeztu zuen, jakitun izanik ikastola frankismoaren mehatxu pean zegoela.

Iriondok Andoainen eskaini zuen lehen emanaldia

Lourdes Iriondok Andoainen eskaini zuen lehen emanaldia, Iparragirre antzokian. 1964ko abenduaren 26an hain zuzen. Bixente Huizi kazetariak, *La Voz de España* egunkarian, egun hartan jaialdia nortzuk osatuko zuten jakinarazi zuen. Iriondok, harrezkero, etengabeko ibilbidea egin zuen herriz herri, bakarka nahiz Ez dok hamairu kolektiboarekin batera.



1964ko prentsan jaso zen kontzertua. AIURRI



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

Burgosko prozesua

Aspalditxo da nire ohiko zuta-betik joan nintzela, osasun arazoak medio. Aiurritik ez, noski. Eta ordutik hona gertakari ugari eman da gure herri honetan. Aipagarriena eta, nolabait, dena baldintzatu duena pandemia; baina testuinguru horren barnean eguneroko bizitza ez da eten maila pribatuan zein publikoan. Eta itzulera honetan, zeri helduko eta hil honetan 50 urte bete diren Burgosko epaiketari heldu diot. Bazegoen zeri heldu, adibidez, Pandemia berari eta honen alderdi gogor eta krudelei, esaterako eman ohi diren eta ematen ari diren heriotzei. Dena den, hautua egin dut eta Burgosko epaiketaren inguruan nire hausnarketatxo egin nahi nuke.

1970eko Abenduaren 5a izan zen Burgosko epaiketa hasi zeneko eguna. Hamasei ziren epaituak gure historian eman den epaiketarik garrantzitsuena eta emaitzetan gogorrenetakoa zalantzarik gabe, gerra kontseilu *sumarisimo*ak eman baitziren aurretik “*Bandidaje y Terrorismo*” izeneko militarren dekretupean. Gurea ere hala izan zen. Apirilean atxilotu, abuztuan epaitu eta niri hogeituroko zigorra eman zidaten militarrek. 60ko hamarkadan eta konkretuki hilabete horietan errepre-sioa gogorra izan zen, eta hainbat eta hainbat izan ziren atxilotuak, kanporatuak eta nola ez torturatuak. Garai horretan eman ziren, halaber, ETako militante garrantzitsuenen atxilotetak, 68-69 inguruan. Hor hasi zen Burgosko makroepaiketa, sorrera eta prestaketa.

Epaiketa honen bidez, militarren asmoa, noski, ETA suntsitzea eta Euskal Herrian sortu zen antifaxismo hura zapaltzea zen. Herri bat altza zen Diktaduraren aurka. Zapalkuntza arlo guztietan zegoen: Langile-mugimenduan, emakumeengan, politikan, zer esanik ez euskara munduan eta euskara bera hizkuntza gisa hartuta. Zapalkuntza horrek guztiak altzarazi zuen herria eta nolabait altxamendu horren katalizatzaile ETA izan zen. Askok eta askok horren inguruan herri honen izaera eta

izana defendatu nahi izan genuen. Mugimendu zabala zen talde militar batetik harago.

Epaiketa, ordea, militarrei eskutik joan zitzaien; beraiek nahi izan zuten bidetik ez, kontraktik baizik. Eta epaituak epaile bihurtu ziren. Epaiketa militante prozesatuek antolatuta zuten eta norabidea markatu. Auskalo nolako eztabaidak eta izaten zituzten espetze barruan. Kontraesan asko sortuko ziren, eztabaida ugari izanen zituzten nahiz eta gero denok ados jarri epai aretoan. Horri erantsi behar zaio herri baten erantzuna: grebak, elkartzatzeak, itxialdiak, eta ez Euskal Herrian bakarrik, baita mundu osoan ere. Batik bat, European. Testuinguru horretan bada gertakari bat Burgosko prozesua eta ETaren gerorako bidea hobeto ulertzen ere laguntzen duenik: Behil Alemaniako Kontsularen bahiketa. Asko eztabaidatu da ea Burgosko epaituek ekintza hori onartu zuten ala ez. Esan behar da, ordurako ETaren barruan eztabaida zegoela erakundearen norabidearen inguruan, ez ote zen komeni borroka armatua uztea eta langile mugimendua buru izango zuen abangoardia bilkakatzea. Dena den, egun hauetan jakinda, prozesatuen ahotik, ekintza hori kartzela barruan eztabaidatua izan zela eta denak ez zeudela ados. Absentzioren bat ere eman omen zen. Esan nahi da dagoeneko borroka armatua eztabaidan zegoela, VI. Asanbladan ikusi zen bezala.

Epaiketaren 50. urteurrena zenbait hedabideetan eta zabaldu eta komentatu da. Donostiako EHUKo Carlos Santa Maria eraikuntzan erakusketa txiki bat antolatu dute. Xumea bezain adierazgarria eta pedagogikoa. Militanteen zenbait objektu ere agertzen dira.

**BURGOSKO PROZESUAK
DIKTADURARI
BUKAERA
EMATEKO BALIO
IZAN ZUEN**

Zenbait hedabidek, azaldu ditudan lerroetatik aparte interpretatu dituzte ekintza horiek denak. Normala, bakoitzaren bizipen eta esperientziak ere desberdinak baitira.

Dena den, interesgarria iragana gaur, alegia, prozesu hura gaurkotik ikusita. Memoriak horretarako balio behar du. Nire iritziz, Burgosko prozesuak diktadurari bukaera emateko balio izan zuen. Golpe latza hartu zuen, ez bairik gabe. Eta nire hausnarketa pertsonalean pentsatzen dut garai hark ez duela zer ikusirik geroko egoerarekin. Garai horrekin identifikatzen naiz eta nire egiten dut. Nere bizitzako zerbait da, dudarik ez, eta ez dut ukatu nahi. Diktadura krudel baten aurkako borroka zen; antifaxistak ginen; herriaren eskubideak defendatzen genituen eta hori garbi utzi nahi nuke.

Eta Rafael Alberti poetak 1970ko abenduaren 8an idatzi zuen poemarekin bukatuko dut nere hausnarketa:

*Heriotzara kondenatzen
badituzu
hiltzen badituzu.
Beraiek izango dira zure
hilkutxaren
sei hiltzeak
zure bizitzako sei hiltzeak,
azkenekoak hiltzen badituzu.
Beraiek izango dira sei hiltzeak,
azkenengoak munduan soilik
existitzen den
Espainia horrek
heriotzari buruz
hitz egiten denean
hiltzeak soilik zugatik
eskua altxatuz denean,
heriotza baita Espainia
horren bizitza.
Hil ala ez hil,
zure heriotza hurbil dago.
Hilik, hilik, hilik zaude jada,
jada hilkutxaren tapan
sei hiltze daude
hiltzatzen dutenak
betirako hiltzatzen dutenak.*

**ANTIFAXISTAK GINEN;
HERRIAREN
ESKUBIDEAK
DEFENDATZEN
GENITUEN**



Haizea Muñoz eta Ana Belen Garcia. LASARTE-ORIA

Kontzertua San Martin Tours elizan, larunbat eguerdian

Eguberrietako abestiak kantu klasikoekin uztartuko dituzte, 12:00tan hasiko den emanaldian

Xabier Lasa ANDOAIN

Ana Belen Garcia organo joleak eta Haizea Muñoz sopranoak gabon giroko kontzertu eskainiko dute. Guridi, Garbizu, Sorozabal eta Ercilla euskal konposatzaileen piezak biziberrituko dituzte. Hala nola, *Ala Baita*, *Euskal Herria*, *Ume eder bat*, *Ilunabarra*, *Olentzero*, *Hator hator*, *Mesias sarritan* piezak. Kontzertua osatzeko, nazioarteko beste zenbait egileen sormenei helduko diete: Widor, Franck eta Gigout.

Haizea Muñoz sopranoa

Donostian jaio zen; 2007an Musikene Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian kantuko ikasketak amaitu zituen. Hainbat musika ziklo eta jaialdietan errezitalak eskaini ditu, baita opera eta zarzuela ezberdinetan bakarlari lanak egiten ere. Opus lirica opera konpainiako kide

da. Bakarlari lana irakaskuntzarekin batera uztartzen du, egun.

Ana Belen Garcia

Andoaindarrak Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan lortu zituen pianoko eta klabinenbaloko goi-mailako tituluak. Musikenen amaitu zituen organo ikasketak.

Egun, Urnietako Lourdes Iriondo musika eskolaren zuzendaria da eta bertan organo eta piano irakaslea ere bada. Donostiako Easo Koroko eta baita Donostiako Santa Maria del Coro Basilikako (Cavaillé-Coll 1863) piano eta organo jolea da. Bakarlari eta laguntzaile gisa nazioarteko hainbat jaialditan hartu du parte. Besteak beste, Espainian, Belgikan, Frantzian, Errusian edota Japonian.

Kontzertuak 150eko aforoa izango du, gonbidapenik gabe.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 11

ANDOAIN Antzerkia

Igel euria obra. Buruko gaitza diagnostikatu dioten pertsonaia bere buruaz beste egiteko zorian da. Antzezlanean ideia bat nagusitzen da: Gaixo izatearen gainetik pertsonak dira. Ados Teatroren eskutik. **19:00 Bastero. Euskaraz.**

URNIETA Aurkezpena

Andoaingo erraldoi eta buruhandiak Basteroko erakusketa gelan egongo dira ikusgai Gabonetan. Urtarrilaren 8ra arte bisitatu ahaliko da honako ordutegian: astelehenetik ostiralera 18:30-20:00, larunbatetan 10:30-13:00 / 18:30-20:30. Abenduak 24 eta 31 arratsaldez itxita. Erabat itxita abenduak 25 eta urtarrilak 1. **Bastero, erakusketa guinea. Abenduak 19, larunbata.**

LARUNBATA 12

URNIETA Kontzertua

Beste Urtaroak eta Voodoo Charms taldeak zuzenean, Katapultatour Gipuzkoa egitasmoaren bitartez. Talde berriak ezagutzeko aukera bikaina. **18:30 Sarobe. Doan.**



Iraultza dantza taldearen eskutik, erakusketa. IRAULTZA

ANDOAIN Euskal jantziak, historian barrena

Iraultza dantza taldearen eskutik, Euskal Herri osoko baserriar jantziak ikusi ahal izango dira erakusketan, XIX. mende bukaeratik XX. mende hasierara. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 18:30-20:00 artean. Larunbatetan 10:30-13:30 / 18:00-20:30. Asteartetan itxita. **Abenduaren 11tik aurrera Basteroko Erakusketa Gelan.**

IGANDEA 13

ANDOAIN Antzerkia

Ikimilikiliklik, Marie de Jongh konpainiaren eskutik. Antzerkia euskaraz. **17:00 Bastero. Euskaraz.**

LARUNBATA 19

ANDOAIN Erakusketa

Erraldoi eta buruhandiak ikusgai. 18:30-20:00, astean zehar. 10:30-13:00 / 18:30-20:30, larunbatean. **Abenduak 19-Urtarrilak 8.**

Kultur ekitaldiak Basteron

Salgai jarri eta ordu gutxi agortu dira Gabonetako hainbat kultur ekitalditako sarrerak


Erredakzioa ANDOAIN

Go!azen ikuskizuna, Losers antzezlanea eta Zetak eta Zea Mays taldeen emanaldietako sarrerak azkar batean agortu ziren. Izarorenak ere agortu ziren.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Ane
Zorionak hilaren 14 an 11 urte beteko dituzu. Milaka muxu etxekoan partetik



ANDOAIN
Zorionak
Bi ahatetxotara iristen zaren urte honetan beti bezain alai eta irribarretsu ospatzea nahi dugu. Zure ondoan izango gara. Asko maite zaitugu. Etxekoak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 12, igandea 13
Monfort: Aita Larramendi, 26. 943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 12, igandea 13
Tanco: Idiazabal, 39. 943 550 942. Urnieta.
Gauetz:
Urrutia-Martin: Etxeberri, 1. 943 557 738. Hernani.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**
9 urteko haurrak, **ukelelea** ikasteko eskolak hartuko lituzke, Andoain. **650 341 108**

SALGAI

Etxebizitza argitsua salgai Irurako plazan, 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Egoera onean eta igogailuarekin. Zatoz ikustera. **666 62 30 79**

Volkswagen Passat 1.6 Diesel 110cv 2014koa salgai, 172.000 km. Prezio ona. **659 848 574**

MERKATU TXIKIAN

PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus
Whatsapp: **619 163 537**

TELEFONO ZENBAKIAK


URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Hil kanpaiak
Larunbata, 12. 19:00.
Igandea, 13. 19:00.
Astelehena, 14. 19:00.

BASTERO

HAURRENTZAT

Erase una vez...
Larunbata 19 eta
igandea 20
16:30.



SINOPSISIA

Hil kanpaiak

Zuzendaria: Imanol Rayo. **Aktoreak:** Itziar Ituño, Eneko Sagardoy, Josean Bengoetxea, Itsaso Arana, Kandido Uranga, Patricia Lopez Arnaiz. **Herrialdea:** EH (2020). **Hizkuntza:** Euskaraz. Azpititulua euskaraz. **Generoa:** Thrillera, drama. **Iraupena:** 95 min.

Ituño euskaraz ikusteko aukera

Miren Gorrotxategiren eleberria egokitu du Joanes Urkixok, Imanol Rayo iruñarraren film berrirako. Garizmendi baserrian gorpuzkinak aurkitu dituzte. Femin eta Karmen

protagonistek, zer egin ez dakitela, Nestor semeari deituko diote. Biharamunean hezurak eta Fermin falta dira. Gertaerak ikusita, Ezpeleta eta Kortazar inspektoreak agertuko dira.

GABONAK 2020



IZKIRIOTA
ardoaren mundua

Eskaerak
etxera
eramaten
ditugu

**695
714
616**

info@izkiriota.com
www.izkiriota.com



Vanesa Barriuso
Basitegi baserria, Urnieta

Etsebeak

Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.

**Orain, inoiz baino gehiago, erosi
ditzagun gure baserritarren
produktuak.**

Erosi geurea,
erosi Gipuzkoa

